



AGOITZ HIRIA NARRAZIO LABURREN XIX. LEHIAKETA - 2026

OINARRIAK

1. PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte hartu ahalko dute Agoizko San Migel Ikastetxe Publikoan Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuan dauden ikasleek edo beste lekuren batean ikasten ari diren Agoizkoek.

2. GAIAK

Lanen gaiari dagokionez, bi aukera dago, **gai libreko idazlana egitea edo**, nahi izanez gero, **udaleko politika soziokulturalerako garrantzizkoak diren ardatz** hauen ingurukoak:

- Agoizko kultura eta natura ondarea.
- Genero berdintasuna
- Gazteen sexu-heziketa arduratsua (Gozamenez programa).
- Gizarteratzeko politikak: emigrazioa, gutxiengo etnikoak, krisi ekonomikoaren paratzaileak...
- Teknologia berrien erabilera arduratsua

Ez da onartuko adimen artifizialez eginiko lanik.

3. MODALITATEAK.

Idazlanak **gaztelaniaz nahiz euskaraz** aurkeztu ahalko dira. **Parte-hartzaile bakoitzak lan bana** aurkeztu ahalko du hizkuntza bakoitzean, alegia gaztelaniaz eta euskaraz bana. Idazlanak originalak izango dira, argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren batean saririk jaso ez dutenak.

Bi modalitate ezarri dira:

1. **Lehen Hezkuntzako eta DBH-ko 1. eta 2. mailako ikasleak.**

- Lehen hezkuntzako lehen zikloko ikasleek ikasgelan denen artean prestaturiko lan bakarra aurkez dezakete.
- Lehen hezkuntzako gainerako ikasleentzat, lanaren luzera gehienez ere **800 hitzekoa** izanen da, eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira.

- DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen kasuan, lanen **luzera gutxienez 500 hitz eta gehienez 2.000koa** izanen dira, formatu digitalean idatziak ere.

2. DBH-ko 3. eta 4. mailako ikasleak.

- DBH-ko 3. eta 4. mailako ikasleentzat **mikro-ipuinen** modalitatea ezarri da. Lanek, **gehienez 300 hitz** izanen dituzte.

4. LANEN AURKEZPENA:

1. **San Migel LHI-ko eta Agoizko DBHI-ko ikasleen kasuan**, ikastetxeak onetsitako "Ipuinak aurkezterakoan bete behar den protokoloa" izenekoan adierazitakoari jarraikiz aurkeztuko dira.

2. **Agoizko ikastetxean ikasten ez duten herrian erroldatutako ikasleen kasuan**, idazlanak emailaz aurkeztuko dira cultura@aoiz.es helbidean. Mezuak honakoa jasoko du:

- Mezuaren izenburua: **AGOITZ HIRIA XIX. IPUIN LEHIAKETA**

- Bi artxibo erantsiko zaizkio:

1.- Lehenengoa, Word formatukoa, ipuina jasoko duena eta ezizen bat erabiliz modu honetan izendatuko dena: EZIZENA-ipuina (Adib.: **KASKABOBOA-ipuina**)

2.- Bigarrena, Word formatukoa ere, egilearen izen-abizenak, adina eta maila jasoko dituen, harremanetarako telefono zenbaki batez gain, eta ezinen bera erabiliz honela izendatuko da: EZIZENA-egilea (Adib.: **KASKABOBOA-egilea**).

5. AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea zabalik egongo da **2026ko martxoaren 31** arte. San Migel IPko eta DBHIko lanak eskegiko dira udalak eta ikastetxeak Driven partekatutako karpetan.

6. JABETZA INTELEKTUALA

Idazlanak egilearenak dira. Hala ere, Udalak beretzat gordetzen du lehengo argitalpena egiteko eskubidea; eta, argitalpen hori egiten bada, egilearen izena agertu beharko du. Saririk ez duten idazlanak jasotzeko 30 eguneko epea dago (epaimahaiak erabakia jakinarazten duenetik hasita). Jasotzen ez diren lanak Udalaren esku geldituko dira.

7. SARIAK

Lehiaketaren sariak (liburu sortak eta eskola materiala), honakoak dira:

1. Euskara:

- a. **Lehen Hezkuntza: 1. eta 2. saria**, hezkuntza bloke bakoitzerako.
- b. **DBH: 1. eta 2. saria**, hezkuntza bloke bakoitzerako

2. Gaztelera:

- a. **Lehen Hezkuntza: 1. eta 2. saria**, hezkuntza bloke bakoitzerako.
- b. **DBH: 1. eta 2. saria**, hezkuntza bloke bakoitzerako.

Antolatzaileek epaimahaiaren erabakia eta sari banaketaren eguna jakinaraziko diete San Migel Ikastetxe Publiko eta Agoizko DBH-ko Institutuko irabazleei, eta jende orori ohiko bideak erabiliz.

8. EPAIMAHAI A

Honako hauek izanen dira epaimahaia osatuko duten kideak: kultur teknikaria, euskara teknikaria, San Migel Ikastetxe Publiko eta Agoizko DBH-ko Institutuko irakasleak, Agoizko kultur entitateen ordezkariak eta literaturaren arloan nabarmentzen diren herriko pertsonak. Horiek guztiek lehen irakurketa egin eta lan hoberenak aukeratuko dituzte. Literaturaren munduko pertsona batek emanen du azken erabakia.

Epaimahaiak hutsik deklaritzen ahal edozein sari, bidezko ikuste badu. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

9. OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar. Antolatzaileek lehiaketa ongi funtzionatzeko beharrezko aldaketa guztiak egiteko eskubidea gordetzen dute.

Agoizko Udala, Kultur Arloa eta Euskara Arloa.